

ILL DAN SOROA OSPATUARI GORATASUN BAT



¿Pozik ez ditu nekazariak soro onean
 Egun ta asteak neke artean igarotzen?
 Baldin baditu andik urtero udazkenean
 Saritzat ordaiñ askoz geyago echeratzen?
 ¿Zer oi du berriz buru langiñak bere artean
 Sayatu baizik irudimena aztertutzen?
 Ta nekazari onak bezela era danean
 Dagokiona neurrian gañez ez du artzen?
 Adiskidea, beti zan zure adimentua,
 Eten gabeko langille zintzo chit argia,
 Irudimena zenduan berriz lur oparua,
 Zeiñ lantzen bota zenduan gogoz izerdia;
 Agatik ziñan, Soroa, egin aiñ ospatsua,
 Zeren zu ziñan buruz soro bat ugaria,
 Ta ala gaur jantzi dizuten koroï baliosua
 Da zure lumak eiñdako lanak merezia.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

* * *

ON MARZELINO SOROA-RI O R O I M E N A



Zure lanakaz barre eiñ dabenak,
 negar eiten dau zu illtean;
 oiñak aiñ ariñ dozuzalako
 jarri kanpora-bidean,

utsune andi bat ichirik emen
 izkribatzallen artean...
 ¡Zorizeztokus zure lan onak
 eroan zeugaz batean...
 noiz edo noiz guk barre egin daigun
 zugaz batu-bitartean!...

PAULO ZAMARRIPA TA URAGA.

SECCIÓN AMENA



FERNANDO AMEZKETARRAREN AGINIYAKO ZITIYA



Arkiturik Fernando azkeneko orduetan, azaldu zan bere oiaren aurrean gizon bat, arrek zor asko ziona, eta ikusi zueneko dio Fernandok:

—¡Ai, gure Jaungoikoak emango balira zuri zor dizudana pagatu arteraiñoiko osasuna!...

Eta konfesoreak au entzunik erantzuten dio:

—Badakizu, Fernando, gure Jaungoikoa ezin ta geiago ona dala eta menturaz zure nai ori irichiko dezu, asmo ona da ta.

—Naiago nuke bada jauna mesede orise beste gauzik asko baño; ez nioke gizon oni zorrik pagatuko eta... sekulako osasuna seguru nuke.

E. ERRAZKIN.

